

## BANAKETA ETA KOMUNIKAZIO KANALAK

---

Kanalak izango dira gure balio-proposamenak, APPENDENTZIA-k eskaintzen dituen zerbitzuak, gure merkatu-segmentuetara iristea ahalbidetuko dituzten bideak. Horretarako, hiru kanal mota bereizten ditugu: komunikazio-kanalak, salmenta-kanalak eta banaketa-kanalak.

- **Komunikazio-kanalak:** gure produktua ezagutzera eman behar dugu eta horretarako, informazioa emateko zein APPENDENTZIArekiko interesa sortzeko marketinaren eta publizitatearen bidez hainbat baliabidetaz baliatuko gara:
  - Ahoz ahoko publizitatea erabiliko dugu onena eta merkeena delako.
  - Iragarkiak Interneten, sare sozialetan eta telebistan jarriko ditugu: Youtuben, Instagramen, Facebooken, menpekotasunari buruzko webguneetan... bideo, poster erakargarri eta esteka moduan.
  - Gizarte-esparruetan (batez ere, menpekotasun eta desgaitasun arloetan) aritzen diren lanbide-prestakuntzako elkarteak, enpresak, erakundeak eta zentroak erabiliko ditugu.
  - Autobus, metro eta tren geltokietan publizitate-kartelak jarriko ditugu.
- **Salmenta-kanalak:** gure produktua saldu behar dugu eta horretarako, gure bezeroek aplikazioa deskargatzeko zein APPENDENTZIA-ren kuota ordaintzeko Google Play eta App Store bezalako plataforma digitalak baliatuko gara.
- **Banaketa-kanalak:** gure produktua gure bezeroei banatu behar diegu eta horretarako, teknologian oinarritutako zerbitzua eskaintzen dugunez, gure banaketa-kanala Internet izango da. Hots, deskargaren bidez, gure bezeroek APPENDENTZIA eskuratu ahal izango dute.

Marketinari esker, bezeroek APPENDENTZIA ezagutu (pertzepzioa) eta ebaluatu ahal izango dute. Hau hobetzeko edo funtzionatzen ez duena aldatzeko aukera ona da. Era berean laguntza aukera gehiago eskaintzen joateko ere aukera ona, merkatu kuota zabaltzeko. Google Play eta App Store plataforma digitalak erabiliz, bezeroek erabiltzeko lizentzia eta aplikazioaren kuota Internet bidez ordainduko dute deskargatzeko. Hala ere, bezeroekin komunikatzeko bideak haratago doaz. Izan ere, telefono zenbaki bat eta e-mail bat ditugu, bezeroek arazoren bat, zailtasunen bat edo zalantzaren bat izanez gero, edo edozein informazio eskatu nahi izanez gero, deitu edo idatzi ahal izateko. Handik ere aholkuak eta iradokizunak eman ahalko dizkigute APPENDENTZIA hobetzeko.